BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

4033

EBAZPENA, 2011ko uztailaren 29koa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen zuzendariarena, herri-administrazioarekin, zuzenbide publikoarekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gai batzuei buruzko ikerketa sustatzearren dirulaguntzak ematen dituena.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariak herri-administrazioarekin, zuzenbide publikoarekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko ikerketak sutatzearren, merezimendu-lehiaketaren bidez, dirulaguntzak emateko 2011ko maiatzaren 26ko ebazpena onartu zuen. Horrekin bat etorriz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengo artikulua.– Herri-administrazioarekin, zuzenbide publikoarekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko dirulaguntzak jarraian aipatzen diren proiektuei ematea:

1.– «Izaera pertsonaleko datuen babesa administrazio elektronikoan». Unai Aberasturi Gorriño.

2.– «La planificación del personal en las administraciones públicas. Marco jurídico y realidad práctica de la ordenación, la estructuración y la carrera profesional». Alfredo Rodríguez Gurtubay.

3.– «El gobierno local vasco ante la desafección política: innovación democrática y participación ciudadana». Noemí Bergantiños Franco.

Bigarren artikulua.– Lehenengo artikuluan aipatutako proiektuek baino ez dutenez gutxieneko puntuazioa gainditu, herri-administrazioarekin, zuzenbide publikoarekin edo administrazio-zientziarekin zerikusia duten gaiei buruzko dirulaguntzen ordezkorik ez dagoela aditzera ematea.

Hirugarren artikulua.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko uztailaren 29a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.